Ja!

XI FESTIVAL INTERNACIONAL DE LITERATURA
Y ARTE CON HUMOR

UMOREZKO LITERATURAREN ETA ARTEAREN
XI. NAZIOARTEKO JAIALDIA

Sala FILARMÓNICA • EUSKAL Museoa • METRO Bilbao

2-11 urr./oct.
BILBAO2020
www.jabilbao.com



MARTA SANZ! PANTOMIMA FULL! RAÚL CIMAS! EDU GALÁN! CARLOS GARCÍA GUAL!
RUBÉN AMÓN! GUILLERMO ALTARES! SERGIO DEL MOLINO! ISABEL VÁZQUEZ! ROSA BELMONTE!
MARÍA ELVIRA ROCA BAREA! INÉS PARÍS! IMANOL ITUIÑO! BERTA VIAS MAHOU!
BORJA CRESPO! JUAN BAS! CAROLINA ONTIVERO! CÉSAR COCA! ASIER SANZ!
MARTÍN CAPARRÓS! AIXA DE LA CRUZ! DARÍO ADANTI! ALBA CARBALLAL!

Jarraitu zuzenenan streaming bidez • Aukeratu sarrerak - www.jabilbao.com

Bienvenidos, damas y caballeros de tenacidad inagotable y enmascarada a esta épica undécima edición del Festival **Ja!**

Como los desorientados que montamos este tinglado somos bastante anormales, la nueva normalidad (buen nombre para un partido facha o una asociación de alcohólicos en dique seco) nos parece menos rara que nosotros. Y como la British Airways, que tiene fama de aterrizar sus aeronaves siempre por chungo que esté el panorama, decidimos en su momento que pondríamos en pie el festival contra todo viento y marea: lo llevaríamos a la práctica con la más vieja normalidad posible. Y que si a última hora teníamos que replegar velas por causa de fuerza mayor debida a otro confinamiento o a éxodo fuera del planeta, iríamos a una solución telepática (mucho mejor y más avanzada que la telemática) para resolverlo. Seguimos confiando en que no hará falta.

Así que con este espíritu de navegación segura en medio de la tormenta, nos ha parecido que un arca de Noé (dibujada por nuestro amigo Asier Sanz) con luz en la casita del puente y recio maderamen, símbolo universal de supervivencia y renacimiento, era la imagen adecuada para el cartel de este año. Les invitamos a embarcarse con nosotros dentro de esta acogedora nave durante las dos próximas semanas de programación, cuyo contenido pormenorizado pueden leer en este encarte y en nuestra web.

Festejar el humor es siempre conveniente, pero este año más que nunca.

Humor y resistencia en Ja!

Juan Bas
Director del festival / Jaialdiko zuzendaria

Ongi etorri, jaun-andreok, irmotasun amaigabe eta ezkutua duzuen horiek, **Ja!** jaialdiaren hamaikagarren edizio epiko honetara.

Nahaspila hau muntatzen dugun nahasiak nahiko anormalak garenez, iruditzen zaigu normaltasun berria (izen ona alderdi faxista batentzat edo dike lehorrean dagoen alkoholiko-elkarte batentzat, bide batez) ez dela gu bezain arraroa. Eta, hala, British Airways konpainiak bezala, hegazkinak baldintzarik zailenetan ere lurreratzeagatik ezaguna, bere garaian erabaki genuen jaialdia kosta ala kosta antolatu behar genuela: ahalik eta normaltasun zaharrenarekin eramango genuen aurrera. Eta azken orduan ezinbesteko arrazoiengatik oihalak tolestu eta atzera egin behar bagenuen, berriz ere konfinatu gintuztelako edo planetatik kanporako exodoa zegoelako, irtenbide telepatikoa bilatuko genuen egoera konpontzeko (irtenbide telematikoak baino hobea eta aurreratuagoa, dudarik gabe). Oraindik ere uste osoa dugu ez dela beharrezkoa izango.

Hortaz, ekaitza gainditu eta aurrera nabigatzen jarraitzeko izpirituarekin, pentsatu dugu Noeren ontzia (gure lagun Asier Sanzek marraztutakoa), zubiko etxola argituta duela eta zureria sendoz hornituta, irudi egokia zela aurtengo kartelerako, biziraupenaren eta berpiztearen sinboloa baita. Hurrengo bi asteetako egitarauan zehar gurekin batera ontzi barruan abiatzera gonbidatzen zaituztegu. Tarteko honetan eta gure webgunean duzue egitarauaren edukia.

Umorea ospatzea onuragarria da beti, eta aurten, inoiz baino gehiago.

Umorea eta erresistentzia Ja! jaialdian!

Marqués del Puerto , 2

El grueso de la programación se traslada este año a la SALA FILARMÓNICA, sede de la Sociedad Filarmónica de Bilbao. Considerada una de las salas de cámara más antiguas y de mejor acústica de Europa, destaca por la belleza de su amplio auditorio de alrededor de 900 butacas, un aforo que se verá reducido al 60% de acuerdo a la normativa vigente. Construida en 1904 y recién reformada en su integridad, acogerá las charlas, las entrevistas y otras actividades del festival, todas ellas de acceso gratuito hasta completar aforo.

Por la especial situación sanitaria, la entrada a los actos de la edición 2020 será con INVITACIONES NUMERADAS. Pueden descargarse a través de la web del festival (máximo dos por persona). En esta misma página también puede consultarse el protocolo anti-Covid19 que seguiremos.

Aurten, egitarauaren zatirik handiena Filarmonika Aretoan egingo da, Bilboko Elkarte Filarmonikoaren egoitzan, hain zuzen. Europako ganbera-aretorik zaharrenetakoa da, eta baita akustika onena duenetako bat ere. Azpimarratzekoa da entzunareto handiaren edertasuna. 900 eserleku inguru ditu, nahiz eta araudiari jarraikiz, edukiera % 60 murriztuko den. 1904an eraiki zen, eta duela gutxi eraberritu dute. Han egingo dira jaialdiko hitzaldi, elkarrizketa eta beste jarduera batzuk. Sarrera doakoa izango da, tokia bete arte. Osasun-egoera berezi honengatik, 2020ko edizioko ekitaldietara bertaratzeko GONBIDAPENAK ZENBATUTA daude. Jaialdiko webean lor daitezke (pertsona batek gehienez bi gonbidapen eskura ditzake). Halaber, Filarmonika Aretoan Covid19aren kontra zer protokolo jarraituko dugun kontsulta daiteke.

Urriak 2 Octubre • Museo Vasco/Euskal Museoa • 12:00h — INAUGURACIÓN • INAUGURAZIOA

INAUGURACIÓN

JA! XI. edizioaren inaugurazioa

Inauguración de la undécima edición del festival con autoridades, invitados y público en general. Entrada libre hasta completar aforo.

Jaialdiaren hamaikagarren edizioa hastera doa. Agintariak eta gonbidatuak izango dira bertan, eta nahi duenak bertaratzeko aukera izango du, doan.

Síguenos en directo por streaming • Consigue las invitaciones en www.jabilbao.com

Urriak 2 Octubre • Sala Filarmónica • 19:30h — DIÁLOGO • ELKARRIZKETA

DARÍO ADANTI - ALBA CARBALLAL

El humor en la pandemia / Umorea pandemian

fundación sgae fundazioa

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea

Apenas había empezado a hablarse del COVID-19 y el coronavirus ya saludaba desde su cuenta de Twitter con un: «¿Alguien quiere que le siga?». Desde los memes con porteadores de ataúdes a los chistes sobre la escasez del papel higiénico, hemos recurrido al humor para sobrellevar la incertidumbre y el miedo. Nada nuevo bajo el sol. Ahí están, por ejemplo, las pinturas de Brueghel el Viejo riéndose a la cara de la muerte sembrada por la peste negra del XIV. Dos profesionales del humor, **Alba Carballal** y **Darío Adanti** —muy versado en pandemias, poca broma— nos hablarán de esa especie de risa nerviosa que ha brotado siempre junto con una epidemia.

*COVID-19ari buruzko lehen informazioak baino ez genituenean, koronabirusak jada egin zigun ongi etorria Twiterren, «¿Alguien quiere que le siga?» txioarekin. Izan ere, egoera latz hau hasi genuenetik umoreaz baliatu gara ezinegonari eta beldurrari aurre egiteko: hilkutxa-eramaileen memeetatik hasita komuneko paper faltari erreferentzia egiten dioten txisteetaraino. Ezer berririk ez. Brueghel Zaharraren pinturetan ikusi baino ez dago, XIV. mendeko izurri beltzak eragindako herioa nola lotsagorritzen duten. Agertokian, **Alba Carballal** eta —txantxak aparte, pandemietan oso aditua den— **Darío Adanti** izango ditugu, epidemien aurrean atera ohi zaigun irri urduri horren gainean hitz egiteko.*

Urriak 3 Octubre • Sala Filarmónica • 19:00h — DIÁLOGO • ELKARRIZKETA

CARLOS GARCÍA GUAL - BERTA VIAS MAHOU

modera CÉSAR COCA moderatzailea

El humor en la mitología / Umorea mitologian

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea

Tanto en la mitología como en la tradición clásica nunca han faltado los golpes de humor, ironía o sarcasmo. Ni siquiera hace hace falta invocar a Yambe, diosa griega de la risa y la poesía, para demostrar que muchos dioses y personajes mitológicos han sido dados a las bromas y el cachondeo en general. Los sátiros, Zeus o Loki son solo algunos de ellos. Sobre mitos y mundo antiguo lo saben todo nuestros invitados, **Carlos García Gual** y **Berta Vias Mahou**. Nos hablarán de ello con su característica erudición llena de amor y humor por los personajes mitológicos.

*Mitologiak zein tradizio klasikoak badute bere alde umoristikoa, ironikoa edota sarkastikoa. Greziar mitologian, adibidez, Yambe da barrearen eta poesiaren jainkosa. Alabaina, ez dugu harengana jo beharrik izan, jainko-jainkosek eta pertsonaia mitologikoek txantxak eta, oro har, olgeta gustuko baitituzte. Satiroak, Zeus eta Loki dira adibideetako batzuk. **Carlos García Gual** eta **Berta Vias Mahou** adituak dira Antzinaroan eta mitoetan. Pertsonaia mitologikoenganako duten maitasun eta umorez betetako jakituria bereizgarri horrekin hitz egingo digute gaiari buruz.*

Urriak 3 Octubre • Sala Filarmónica • 20:45h — DIÁLOGO • ELKARRIZKETA

MARTÍN CAPARRÓS - AIXA DE LA CRUZ

La gran evasión: el refugio de la cultura

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea

El confinamiento global al que nos hemos visto sometidos no tiene precedentes en la historia. Junto a la incertidumbre y la sensación de vulnerabilidad, la mayoría nos hemos encontrado con todas esas horas libres que tanto deseábamos... pero encerrados en casa. ¿Qué hemos hecho con ellas? No pocas personas declararon su incapacidad de concentrarse en ninguna clase de ficción, al menos durante las primeras semanas, pero es un hecho que el consumo de productos culturales creció vertiginosamente durante los días de encierro. ¿Qué papel jugaron los contenidos de tono humorístico? ¿O solo nos dio por las distopías, las plagas y las catástrofes?

Lehen aldiz historian, mundu-mailako itxialdia bizitu dugu. Beldurra, ziurgabetasuna eta ahultasun-sentsazioa izan dira nagusi. Kasu gehienetan, ordea, hainbeste irrikatzen genituen ordu libreez gozatzeko aukera izan dugu, etxe barruan, noski. Zer egin dugu denbora horretan? Produktu kulturalen kontsumoa (liburu, film zein musika) izugarri igo zen itxialdian. Hala ere, batek baino gehiagok aitortu digu lehenbiziko asteetan behintzat ezin izan duela gogoa inolako fikziotan jarri. Zer-nolako harrera izan dute umorezko edukiek? Edo mundu amaierari eta izurriteei buruzko filmak baino ez ditugu kontsumitu?

Urriak 4 Octubre • Sala Filarmónica • 18:00h — ESPECTÁCULO • IKUSKIZUNA

MAGIA PARRASTAN *Euskeraz*

Espectáculo humorístico de magia en euskera a cargo de

IMANOL ITUIÑO

Imanol Ituiño*k umorez eta magiaz betetako ikuskizuna aurkeztuko du: 'Magia parrastan'. Familiei zuzentzen zaie eta karta, bola eta soken jokoak, agerpenak eta desagerpenak biltzen ditu.*

Juegos con cartas, bolas, cuerdas, apariciones y desapariciones, **Imanol Ituiño** presenta su espectáculo 'Magia parrastan', repleto de humor y magia a cascoporro para toda la familia.

Urriak 4 Octubre • Sala Filarmónica • 19:30h — ENTREVISTA • ELKARRIZKETA

MARTA SANZ en conversación con

CAROLINA ONTIVERO-rekin elkarrizketa

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea

Marta Sanz utiliza la risa como herramienta de diagnóstico. Entre sus materiales de trabajo nunca faltan la ironía, la sátira y la parodia. Le sirven para denunciar «lo que le duele» de una forma que parece menos violenta, pero que «termina siendo muy urticante, sobre todo en tiempos de corrección política». Marta Sanz es una vieja amiga de este festival y ha participado en muchas de sus ediciones, pero nunca lo ha hecho con su obra como protagonista. La publicación de 'pequeñas mujeres rojas', cierre de la trilogía del singular detective Zarco de 'Black, Black, Black' y 'Un buen detective no se casa jamás', nos parece una buena excusa.

Marta Sanz*ek diagnostikorako tresnatzat du barrea. Ironia, satira eta parodia erabiltzen ditu «amorrua sorrarazten dion hori» modu atseginagoan salatzeko, nahiz eta «zuzentasun politikoa gailentzen den garaiotan erresumin handia eragiten amaitu». Marta Sanz eta jaialdia lagun zaharrak dira. Hainbat ediziotan parte hartu du, protagonisten artean egon ez bada ere. 'Black, Black, Black' eta 'Un buen detective no se casa jamás' lanen ondoren, 'pequeñas mujeres rojas' delakoarekin Zarco ezohizko detektibearen trilogia itxi du. Aukera aparta iruditu zaigu hainbeste merezitako protagonismo hori emateko.*

Urriak 8 Octubre • Sala Filarmónica • 19:30h — RADIO • IRRATIA

LA CULTURETA GRAN RESERVA con RUBÉN AMÓN, GUILLERMO ALTARES, ROSA BELMONTE, SERGIO DEL MOLINO & ISABEL VÁZQUEZ-ekin

En 2014, Carlos Alsina, **Rubén Amón**, Manuel Jabois y el añorado David Gistau hablaban de series y libros los viernes por la noche en una sección de 'La Brújula' de Onda Cero a la que pusieron el autoparódico nombre de 'La Cultureta'. Una osada fórmula de programa cultural en radio comercial que sigue en antena siete temporadas después con relevo de integrantes y de programa padre —ahora en 'Más de uno', también de Carlos Alsina—, pero con las mismas señas de identidad: Woody Allen, Mary Beard, la Mafia, el Holocausto, el western y los trenes, entre otras. En sus comienzos, 'La Cultureta' se emitía desde lugares clandestinos —escapando de Moriarty—, pero nunca se ha hecho desde uno tan exótico como nuestro festival. Con el *padre Amón* al frente de esta edición *Gran Reserva* nos acompañarán los *culturetas* **Guillermo Altares**, **Rosa Belmonte**, **Sergio del Molino** e **Isabel Vázquez**.

2014an, Onda Cerok kulturari lotutako atal bat zuen 'La Brújula'-n. Ostiral gauetan, Carlos Alsina, ***Rubén Amón****, Manuel Jabois eta etsipenez oroitzen dugun David Gistau irratsaio-kideek serieak eta liburuak izaten zituzten hizpide,* 'La Cultureta' *saio autoparodikoan. Irrati komertzial batean kultur programazioa sartzea benetako erronka izan zen. Alabaina, Onda Cerok irratsaioa mantendu du, eta irratsaio-kideak eta jatorrizko programaren izena aldatu baditu ere — 'Más de uno' da orain, eta Carlos Alsinak zuzentzen du—, nortasun-seinale berak ditu —Woody Allen, Mary Beard, Mafia, Holokaustoa, western-a, trenak—. Gainera, gero eta jarraitzaile gehiago ditu, jaialdia tartean. Hasiera batean,* 'La Cultureta' *toki ezkutuetatik igortzen zen—Moriarty-rengandik ihesi—; sekula ez, ordea, jaialdi hau bezain leku exotiko batetik.* 'Gran Reserva' *edizio honetan, gurekin egongo dira* "culturetak" *diren* ***Guillermo Altares, Rosa Belmonte, Sergio del Molino*** *eta* ***Isabel Vázquez****, eta, haien buruan,* "padre Amón"*.*

Urriak 9 Octubre • Sala Filarmónica • 19:00h DIÁLOGO • ELKARRIZKETA

MARÍA ELVIRA ROCA BAREA - ROSA BELMONTE

El humor en Galdós / Umorea Galdosen

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea

Benito Pérez Galdós es uno de los autores mayores en lengua española. Muy cerca de Cervantes, de cuyo humor es probablemente su más claro heredero. Aunque la literatura galdosiana también recibe el influjo de la novela picaresca del XVII y de los grandes autores de 'buen humor' contemporáneos a él como Dickens. Fino, irónico, burlón, socarrón y a veces amargo, el humor de Galdós no pretende ofender ni ser corrosivo sino describir a sus lectores la tragicomedia humana. En el año del centenario de la muerte de Galdós, queremos recordar la figura, la obra y un aspecto de ésta nunca destacado lo suficiente: el humor. Lo haremos de la mano de **María Elvira Roca Barea** y **Rosa Belmonte**.

Benito Pérez Galdós Espainiako literaturaren idazle garrantzitsuenetako bat da, Cervantesen umorearen oinordeko zuzena, segur aski. Halaz ere, XVII. mendeko eleberri pikareskoaren eta gaur egungo 'umore onaren' idazle garrantzitsuenen eragina ere nabari zaio, Dickensena, kasu. Umore fin, ironiko, burlari eta, zenbaitetan, garratza du. Aitzitik, haren helburua ez da irakurleak (hainbeste dira, eta hain zoriontsuak!) iraintzea, tragikomedia deskribatzea baizik. Haren heriotzaren mendeurrena dela eta, omenaldia egin nahi diogu, haren obra, eta, bereziki, umorea, gogora ekarriz, alderdi horri ez baitzaio sekula nahikoa garrantzia eman. Haren bizitza eta obra ezin hobeto ezagutzen duten bi gonbidatu izango ditugu: ***Rosa Belmonte*** *eta* ***María Elvira Roca Barea****.*

Urriak 9 Octubre • Sala Filarmónica • 20:45h DIÁLOGO • ELKARRIZKETA

RAÚL CIMAS - EDU GALÁN

Tirad sobre el humorista

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea

Woody Allen ha pasado de genio a monstruo en apenas diez años por una acusación desestimada judicialmente en la que no se ha producido novedad. Solo ha cambiado la percepción de ésta por parte de una sociedad crecientemente sentimental, victimista y susceptible a la ofensa, donde a menudo se confunden realidad y ficción y se abrazan causas que para algunos justifican la pérdida de derechos. Las redes sociales e internet están ahí para que todo alcance dimensiones cósmicas. **Edu Galá**n ha llamado 'El síndrome Woody Allen' a esta nueva forma de linchamiento público. No alcanza exclusivamente a humoristas, pero muchos se han convertido en diana. Poca defensa cabe ante un ataque tan arbitrario. Como mucho reírse de ello. Como hace **Raúl Cimas** cuando se le acusa de que sus historias sean un INVENT.

Hamar urtetan ozta-ozta, Woody Allen jenio izatetik munstro izatera pasa da, epaileak atzera botatako salaketa batengatik. Gizarteak pertzepzioz aldatu du: gero eta sentimentalagoa da, biktimista, erraz samintzen da, eta, askotan, errealitatea eta fikzioa nahastu eta eskubideak galtzea justifikatzen duten kausak babesten ditu. Gainera, sare sozialetan eta interneten, guztiak egundoko hedapena dauka. ***Edu Galán****ek 'Woody Allenen sindromea' deitu dio lintxamendu publiko horri, eta egia bada ere ez diela bakarrik umoristei eragiten, azken urteotan haietako asko izan dira helburu. Hain da bidegabea, ezen oso zaila den eraso horretatik babestea. Barre egitea beste erremediorik ez dago,* ***Raúl Cimas****ek egiten duenaren antzera, istorioak asmatzea leporatzen diotenean..*

Ja! LIVE

SÍGUENOS EN DIRECTO POR STREAMING • JARRAITU ZUZENEAN STREAMING BIDEZ

Urriak 10 Octubre • Sala Filarmónica • 19:30h

ENTREVISTA • ELKARRIZKETA

PANTOMIMA FULL en conversación con BORJA CRESPO-rekin elkarrizketa

Pantomima Full —Alberto Casado y Rober Bodegas— son dos tipos que odian todo lo que les rodea y que hacen desternillantes sketches de ello. Parodian al urbanita medio de entre 20 y 40 años con sus odios, sus manías y sus preocupaciones en la vida: el *terraceo*, las *paibons* y los gintonics, básicamente. Humor blanco, costumbrista, que clava las bondades o maldades de la personalidad y el modo de vida de una generación cuyo medio de comunicación principal es internet. Conoceremos mejor a estos *canallitas* a través de su charla con **Borja Crespo**. En octubre, se lía.

*Alberto Casadok eta Rober Bodegasek **Pantomima Full** duoa osatzen dute. Gizarteari orokorrean gorroto diote, eta horri buruzko esketx dibertigarriak egiten dituzte. Urbanita arrunta, 20-40 urte bitarteko belaunaldia, hura eta haren higuinak, apetak eta kezkak parodiatzen dituzte: "terrazaz terraza ibiltzea, paibonak eta gintonicak". Umore zuria eta kostunbrista da, Internet bidez komunikatzen den belaunaldi baten nortasun eta bizimoduko ontasunak eta gaiztakeriak bete-betean asmatzen dituena. **Borja Crespo**rekin solas egin ondoren hobeto ezagutuko ditugu bi "alproja" horiek. Mundiala izango da!.*

Urriak 11 Octubre • Sala Filarmónica • 19:00h

DIÁLOGO-PROYECCIÓN • ELKARRIZKETA-PROIEKZIOA

LAS 10 SECUENCIAS DE HUMOR FAVORITAS
10 SEKUENTZIARIK GUSTOKOENAK
INÉS PARÍS en conversación con JUAN BAS-ekin elkarrizketa

fundación sgae fundazioa

Nueva entrega de esta sección en la que un invitado comenta junto al director del festival la proyección de sus diez secuencias de humor favoritas. Esta edición la protagonizará **Inés París**, directora y guionista de cine y televisión, entre cuyas películas destacan 'A mi madre le gustan las mujeres' (2002); 'Semen, una historia de amor' (2005), ambas junto a Daniela Fejerman, y 'La noche que mi madre mató a mi padre' (2016).

*Atal honetan, gonbidatuak bere gustuko filmak aurkeztuko dizkigu, eta gogokoen dituen umorezko hamar sekuentziez hitz egingo du jaialdiko zuzendariarekin. Aurtengo edizioan, **Ines París** zinemagile eta gidoilaria izango da protagonista. Haren film ezagunenak dira 'A mi madre le gustan las mujeres' (2002); 'Semen, una historia de amor' (2005) (Daniela Fejermanekin egin ditu biak), eta 'La noche que mi madre mató a mi padre' (2016).*

Síguenos en directo por streaming • Consigue las invitaciones en www.jabilbao.com

EXPOSICIONES • ERAKUSKETAK

ASIER SANZ

Collages

Metro Bilbao • 15/09-15/10

Indautxu/ Moyua/ Abando/Casco Viejo

El ilustrador bilbaíno **Asier Sanz** lleva algunos años experimentando con la técnica de utilizar materiales de andar por casa en sus diseños. Desde entonces, su imaginativa combinación de frutas y verduras variadas, embutido cortado y cartulinas de colores le ha hecho ganar numerosos premios en certámenes internacionales de humor (Italia, Bélgica, Brasil) y quedar finalista del World Press Cartoon 2019 y del World Humor Awards 2018. El collage de Trump hecho a base de mortadela y plátano se hizo viral en todo el mundo y fue elegido como portada del libro con las mejores portadas publicadas en el mundo de publicaciones como Time, The New Yorker, Rolling Stone, Esquire, The New York Times, o Der Spiegel.

El collage de Trump mencionado es uno de los diez retratos de personajes internacionales conocidos del mundo de la política, música y deporte que formarán parte de la exposición en Metro Bilbao.

Asier Sanz es el autor del cartel del festival este año.

***Asier Sanz** ilustratzaile bilbotarrak hainbat urte daramatza etxeko materialez baliatutako diseinuak egiten. Harrezkeroztik, askotariko fruta eta barazki, moztutako hestebete eta koloretako kartulinekin irudimen handiko konbinazioak egin ditu. Sari ugari jaso ditu umorezko nazioarteko lehiaketetan (Italia, Belgika eta Brasil), eta finalista geratu da 2019ko World Press Cartoon eta 2018ko World Humor Awards lehiaketetan. Mortadelaz eta bananaz eginiko Trumpen collagea, adibidez, mundu osoan zabaldu zen, eta hautatua izan zen Time, The New Yorker, Rolling Stone, Esquire, The New York Times eta Der Spiegel hedabideen azal onenekin batera liburuko azalean agertzeko.*

Bilboko Metroan, politikaren, musikaren eta kirolaren munduko hamar pertsonaia ezagunen erretratuak ikusi ahal izango dira. Horien artean egongo da Trumpen collagea ere.

Aurten, Asier Sanzek egin du jaialdiko kartela ere.

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EL CORREO

TRABAJOS VI CONCURSO ESCOLAR DE HUMOR GRÁFICO
ESKOLAKO UMORE GRAFIKOAREN VI. LEHIAKETA LANAK

18-27/12

Si la situación sanitaria lo permite, el fallo del VI Concurso Escolar de Humor Gráfico se celebrará el próximo 19 de diciembre. Se hará en un espacio aún por determinar donde además podrá verse del 18 al 27 de diciembre una selección de los mejores trabajos presentados a concurso.
Se avisará a participantes y centros escolares con los detalles y lo publicaremos en la web del festival. Consulta las bases en **jabilbao.com**.

Osasun-egoerak ahalbidetzen badu, abenduaren 19an, VI. Eskola Lehiaketaren epaitza jakingo da. Horrez gain, abenduaren 18tik 27ralehiaketara aurkeztutako lanik onenekin egindako bilduma jarriko da ikusgai.
Ikastetxeei zein parte-hartzaileei xehetasunez ohartaraziko zaie, eta jaialdiko webean ere argitaratuko dugu. **jabilbao.com**.

Librería

JA! Liburudenda

Librería CAMARA

librerías JOKER

Las librerías Cámara y Joker se convierten por unos días en la librería de Ja! en la Sala Filarmónica.
Cámara eta Joker liburudendak egun batzuetan zehar Ja! liburudenda bihurtuko dira Filarmonika Aretoan.

Babesle Instituzionalak / Patrocinadores Institucionales

Babesle Nagusiak / Patrocinadores Principales

Babesle Orokorrak / Patrocinadores Generales

Babesle Gastronomikoak / Patrocinadores Gastronómicos

Laguntzaileak / Colaboradores